

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroak edota erabiltzaileak enpresarekin harremanetan jarri ahal izateko, gure webgunera jo dezakete. Bertan gurekin harremanetan jartzeko bide guztiak aurki daitezke, hala nola, posta elektronikoa eta telefono zenbakia.

Proiektua bultzatzeko sare sozialak garrantzitsuak direlakoan gaude. Twitter eta Instagram bezalako sare sozialen bidez, bezeroek gurekin kontaktuan jartzeko aukera izateaz gain, aplikazioaren inguruko albiste eta berrikuntzen berri izango dute, esaterako, bideo berrien abisua. Gainera, sare sozialen erabilpenarekin gure bezeroekiko harremana estutu eta sendotu nahi dugu. Horretaz gain, gure helbide elektronikora ere proposapenak edo iritzia bidal diezazkigukete, eta guk ere bertatik erantzun genieke.

Horretaz gain, telefono zenbaki bat egongo da webgunean bezeroentzako eskuragarri, bezeroekin harreman zuzenagoa edukitzeko. Gutariko bat zuzenean bezeroekiko harremana mantentzeaz arduratuko litzake, arreta zerbitzu azkar eta egokia eskaintzeko.